

noaua

**Ohorezko Mailara igo da
Usurbil FTko senior taldea**

**Arrainen migrazioaren
inguruko jardunaldiak**

**Sagardo Egunean,
autoa ez erabiltzeko deia**



Onena ematen ari dira



- Udako ingeles intensiboak
- 2 edo 4 astekoak, goizez:
 - Uztailak 7 - 18
 - Uztailak 21 - Abuztuak 1
- Hizkuntza landu edo azterketa prestakuntza
- Bertako irakasleak
- Maila guztiak
- 8 ikasle gehienez gela bakoitzean



Summer!

INGELESA UDAN

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Eman izena lehen bait lehen!

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



Ekainaren 15a bitartean,
Intza ileapaindegian, *Huya*
etxearen GOLDEN ARGAN OIL
betile tinte iraunkorra aurkituko
duzu 25€-tan!

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA



Eguerditan irekia!
Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

Albiste iruditan

Iraganak orainarekin bat egin zuenekoa

XVI. mendeko dolare-baserri baten barruan, garai bateko sagar eta sagardo ekoizpen zein ekoizleak omentzen zituen dantza garaikideko saio eder batez edota hirukote musikari baten emanaldi goxo eta intimoaz gozatzeko aukera, ezin esan egunero izan ahal dugunik. Horregatik, aurreko larunbatean II. Sagastiak Loretan zikloaren baitan, Aginagako Sariaaundi baserrian ospaturiko hitzordua ezin bereziagoa izan zen.

Jakoba Errekondok dolare-baserriaren eta inguruen historiak azalpen interesgarriak eskaini zizkien bertaratu ziren bisitariari. Eraikinak duen atari ezin ederragoaren parean lehenik, eta baserri barruan gero. Azalpenok, Eneko Balerdi dantzari aiarrak ekitaldirako sorturiko dantza garaikideko saioarekin tartekatuz zituen. Eta maiatzaren 10eko arratsalde pasa borobiltzeko, Atrium hirukote musikariaren saioa. Publikoa hunkitu zuen Ainhoa Franco (ahotsa), Jurdana Otxoa (bibolina) eta Maider Zapirain (txeloa) hirukotearen saioak. Emanaldi osoa bezala, intimoa eta goxoa, leku oso berezian. Sariaaundiko bisita gidatu berezi honen bigarren edizio honen ostean, bada gogoia berriz, datorren urtean esperientzia errepikatzeko.



Aurreko larunbatean Sariaaundi baserriera hurbildu ziren bisitariak, Jakoba Errekondoren azalpenari adi.

Laburrean

Ekainaren 14an, 1964koen kinto bazkaria

Ekainaren 14an, larunbatez, bilduko dira aurtien 50 urte betetzen dituzten usurbildarrak. Kinto bazkarirako izen ematea zabaldu dute. Apuntatu asmo duzenok, deitu bi telefono zenbaki hauek batera, arratsaldean, 18:00-22:00 artean: 667 055 553 (Julen) edo 655 715 084 (Rosa).

Ate irekien azken eguna, Lanbide Eskolan

Bigarren larunbatez jarraian, maiatzaren 17 honetan ate irekien eguna antolatu du Lanbide Eskolak, 11:00etatik 12:30etara. Bertaratu asmo duzenok, deitu aurrez 943 36 46 00 telefono zenbakira. Informazio gehiago: lhusurbil.com

Sarai Lizaso, abentura saiotik kanpo

Finalera heltzeko bide luzea ez zitzaion gertzen jada, baina ibilbidea amaitu du Euskal Telebistako "El Conquistador" realityko saioan. Kaleratu egin berri dute lehiaketatik. 2014ko edizioko partehartzaile gazteena izan da aginagarra.

noa.ua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noa.ua.com // www.noa.ua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noa.ua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noa.ua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.


Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza, Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Berri gozo gehiago nahi

Izaten dira une gaziak, ika-mikarako tartearak, desadostasunak, elkar ulertu ezina, albiste ilun edo tristeen berri eman beharra... Astekari hau ere horren lekuko izan ohi da sarri, urtean zehar. Baina eskutan duzuen NOAUA! hau irakurtzen hasten bazarate, bestelako kutsua hartuko diozue. 573. zenbaki hau garaipenez, ilusioz eta festarako gogoz den herri baten isla da. Eta zergatik ez, hau ere nabarmendu beharra dago, krisi, arazo, zailtasun, muga edo oztopo kontzeptuen esanahi eta eragina egunerokoan barru barruraino barneratuak ditugun garai luze eta amaigabe honetan.

Herriko kirolarien eskutik datoz, azken egunotako berri pozgarriak. Begira Usurbil FT-koak, senior mutilek ohorezko mailara igotzea lortu dute. Egindako ahaleginak merezitako emaitza izan du. Eta merezitako ospakizuna, "Txanpions" eta halakoen inbidiariak ez duena. Finala, herritik kanpo jokatu arren, nola ez, usurbildarren artean ospatu baitzuten maila igoera joan den igandean. Diotenez, (;)) baten batzuk astelehen goizera arte luzatu omen zuten parranda. Usurbil FTkoen bezperan, Bera Bera. Han ere bi usurbildar; Esther Arrojeria eta Martin Larrañaga. Kopa eta Liga irabazita. Eta hauek

ere ospatzera joan ziren noski. Itoitz Rodriguezek marka berri bat hautsi du eta Europako Txapelketari begira dago. Herrian artean, bi txapelketa herrikoien amaiera. Aitzagako mus txapelketa, eta Jon Uriberen omenez antolaturiko pala txapelketa nesken finala. Ane Manzisidor garaile...

Esandakoa, garaipenez jositako egunak bizi ditugu. Garaile eta garaikurrak baino zerbait gehiago diren garaipenak. Garaipena, bide luze baten helmuga. Babes gehiago edo gutxiagorekin, errazago edo zailago, jorraturiko bidea. Eta helmuga hain gertu ikusteak, barruak mugitu

tu beharrak ditu. Esan bestela eskubaloikoei. Asteburu historiko eta ziur, hunkigarri baten atarian gaude. Igoera fase bana jokatu dute senior emakumezko eta gizonezkoen taldeek. Prest dira denak, jokatzen hasitako gogotsu. Eta Usurbil, eskubaloiko festa handi baten erdigunean bilakatuko da. Jendetza espero da. Baita txapelketok amaituko diren igandean, usurbildarren jai egun maitatuena den Sagardo Egunean ere. Herria prest da bertako zein bisitarietara harrera egiteko. Datorkigun asteburu gozoa, begi bat Kiroldegian, eta bestea Kaxkoan dugula igaroko dugu. Hasi dadila festa!

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

Txupinazorako proposamen bilketa, maiatzaren 30era arte

Nork merezi du herriko festen hasiera ekitaldiko suzuria piztea? Zuen esku aurten ere, Santixabeletako txupinazoa nork jaurtiko duen erabakitzea. Jai Batzordetik proposamenak egitera animatzen dute. Iradokizunik duzuenok, bidali kultura@usurbil.net helbidera, edo Sutegi udal liburutegian eta Potxoenean jarriak dauden postontzietan utzi, maiatzaren 30a baino lehen.

Jai Batzordeak, ekainaren 2an, 18:00etan Potxoenean egingo duen bilkuran, jasotako proposamen guztiak aztertu eta azken erabakia hartuko du. Deialdi irekia da hau, edo nork parte har dezake. "Ani-



Iaz, DYAkoak izan ziren jaien hasierako protagonistak.

matu beraz, aurtengo Santixabel jaietako txupinazoa nork bota lezakeen proposatzera!", luzatu dute gonbita Jai Batzordetik.

Egitarau diseinu lehiaketa
Ostegun hau, maiatzaren 15a

duzue lehiaketan parte hartu asmo duzuenok, zuen diseinu lana aurkezteko azken eguna. Usurbilgo Udaleko Kultura Sailera bidali behar dituzue; Joxe Martin Sagarria Plaza z/g, 20.170 Usurbil helbidera. Epaimahaiak izan-

go du azken hitza. Epaimahaia, Santixabeletako Jai Batzordeko eta diseinu arloan ezagutza duten bina kideak eta kultura zinegotziak osatuko dute. Irabazleak, 500 euroko saria jasoko du. Argibide gehiago: 943 371 999 edo kultura@usurbil.net

Erraldoi konpartaren kalejira, San Ixidro Egunean

Baserritarren eguna ospatuko da ostegun honetan, maiatzaren 15ean; meza, herri kirolak eta bazkaria Artzabalen. Eta arratsaldean, 18:30etatik aurrera, Usurbilgo erraldoi konpartaren kideak kalera irtegarako dira. Iaz bezala, kalejira antolatu dute. Kaxko inguruko kaleak zeharkatuko dituzte.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: maiatzak 23. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 19 (eguerdiko 11:00ak).

Sagardo Egunean, autoa ez erabiltzeko deia Udaltzaingotik



Herrira datozen autoak Zumartegi eta Osinalde industria gunetara bideratuko dituzte.

Egun mugitua izango da igande honetakoa. Maiatzaren 18an, XXXIII. Sagardo Eguna ospatuko da Usurbilen, baita eskubaloiko igotza faseen amaiera ere. Jendetza espero denez, herri erdigunean bizi direnei ahal den neurrian, kotxea ez hartzeko deia egiten diete Udaltzaingotik. Egun horretarako plan berezia prestatzen ari dira. Ohi bezala, ibilgailuen joan etorrirako zenbait kale itxita egongo dira eta autobus geltokia ere lekuz aldatuko dute, hilaren 18an.

Urtero moduan, goizeko 10:00ak aldera, Oxtape aldetik Kale Nagusirantz doan sarrera trafikoa erazteko itxi egongo dute udaltzainek. Honenbestez, herrira datozen ibilgailuak Zumartegi eta Osinalde industria gunetara bideratuko dituzte. Nagusia ez da trafikoa erazteko itxiko duten kale bakarra izango. Bizkarre, Zubiaurrenea, Puntapax, San Inazio eta Alperroburu (zati bat) kaleak, baita Gernika ibilbidea ere ibilgailuentzako itxita egongo baitira.

Autobusa hartzeko, San Inaziora

Autobusa hartu behar duzuenok adi. Kale itxieron

“Kale Nagusia, Bizkarre, Zubiaurrenea, Puntapax eta San Inazio kaleak, Alperroburu kaleko zati bat eta Gernika ibilbidea ibilgailuentzako itxita egongo dira”

eraginez, lekuz aldatuko baitute bus geltokia. Donostiatik Orio aldera doazen autobusak ez dute Kale Nagusia zeharkatuko. San Inazioko errotondan geratuko dira. Oriotik datozen autobusetara bai, ohiko lekuan igo ahal izango da, Txaramuntoko alokairu sozialeko etxebizitzan ondoan.

Eskubaloitza taldeak, igotza fasean

Sagardo Egunaz gain, senior eskubaloitza taldeen igotza faseko azken neurketak jokatuko dira igande goizean. Etxekoez aparte, kanpotik hainbat talde datoz autobusez Usurbila. Maiatzaren 18an, autobusok Kiroldegitik ahalik eta leku gertuenera, Agerialdeko errotondara bideratuko dituzte, Udaltzaingotik berri eman dutenez.

165eko taldea, Udajolasen

177 haurrek eman zuten Udajolaserako ize-na, apirila hasieran apuntatzeko ireki zen epearen baitan. Murriztagoa izango da ordea, uztailko aisialdi ekimenean parte hartuko duen gaztetxo kopurua. Guztira, Udajolaserako 4-12 urte arteko 165 haur taldea osatu da. Zergatia, maiatzaren 5etik 8ra ordaintzeko egiteko egin genuen deialdian dago. Apuntatuak zeuden 177 haurretatik, 165ek ordaindu zuten Udajolaseko plaza.

Guraso bilera, ekainaren 12an

Izen ematea itxita eta plazan ordainketa epea igarota, guraso bilera dator orain. Ekainaren 12an, 17:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan jarri dugu hitzordua, uztailaren 1etik 30era luzatuko den aisialdi ekimenean inguruko argibideak eskaintzeko. Ohar bat, Udajolaseko egutegiari dagokionez; aipaturikoa, uztailaren 1ean abiatuko da aisialdi ekimena, baina uztailaren 2an eta 3an, Santixabelak tarteko, ez da Udajolaseko plaza. Ezta uztailaren 25ean ere.

Zubietako udako txokoetan izen emateko aukera

Maiatzaren 25era arte. Apuntatzeko orriak, ikastolan eta Barazar tabernan eskuratu daitezke. Datu pertsonalekin bete ostean, Zubietako Herri Batzarreko postontzian utzi beharko da izen emate orria. Kuota, izena emandako haur kopuruaren arabera zehaztuko da. Zalantza edo argibide gehiagorako: 636 719 301 (Josune) / 608 663 047 (Bakartxo).

Uztaila eta abuztua, zabalik

Aurten ere, uztaila eta abuzturako udako txokoak antolatzen ari dira Zubietan, Usurbilgo Udalaren laguntzaz, 3-11 urte arteko haurrentzat. Eskola Txikian burutuko da bi hilabeteko aisialdi ekimena. Astelehene-tik ostiralera, 9:30-13:30 artean.

 **Kima** 
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

 **TAXI**
24 h
USURBIL

677 37 34 66 } Joxe
943 36 21 78 } Etxabe

ESKAIOLA eta
PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Elkartasuna

Jakin badakizu euskal herritarrek oso solidarioak izan garela betidanik, edozein ekintza antolatu delarik ere, parte hartze handia izaten baita. Oraingoan, herritik kanpo sortu den mugimendu baten berri ematera sartokizue, Donostian, hain zuzen ere. Pintxo koop izeneko mugimenduz ari nartzaizue, alegia. Hasiera batean, Aspaceko burmuineko paralisia duten haurrei egokitutako kirol materiala lortzeko sortu zen talde hau. Bada hala ere, beste hainbat proiektuei eusteko nahia. Kontua da, Pintxo koop mugimendua, orain ari dela pixkanaka hedatzen eta Donostiako geruz eta taberna gehiago ari direla mugimendu honekin bat egiten. Alde zaharrean, Grosen, Loiolan eta erdiguneko hainbat tabernetan ikus dezakegunez, karteltxo adierazgarri batekin azaltzen diren pintxoaren diruaren zati bat, momentu horretako proiektura bideratuko da. Badakit ez dela gure herririko gaia, baina gertutik ezagutzen dut antolatzaileetako bat eta gure herririan honelako mugimenduak zabaltzea interesgarria izango litzatekeela iruditu zaidanez, idatzi honen bitartez zabaltzea otu zait. Zoritxarrez, inguruan ditugu gaixotasun arraroak dituzten hainbat eta hainbat kasu eta berauei honelako ekintzekin gure laguntza eskaintzea, ikaragarria izango litzateke. Norbaitek informazio gehiago nahi balu, hemen Pintxo koop solidarioaren web orria: www.pintxokoop.com. Ondo pasa Sagardo Eguna!!! Txotx!!!!



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Oroimena

Orain egun batzuk utzi gaitu Pili Gorritik, eta bere oroimena ekarriko dut gaur zuen artera. Usurbilen dantzari talde handia zen gure garai haietan, orain dela 50 urte inguru. Haietako talde bat argazkian azaltzen da eta goitik hasita, eskuinetik ezkerrean bigarrena da Pili. Esan behar dut neure dantzako bikotea zela, eta oso ondo konpontzen ginela. Garai hartako oroimen oso onak dauzkat. Gure euskal dantzak ederrak dira benetan, denak, gehienak gogoratzen ditut; aureskua, baso dantza, zinta dantza eta zer esanik ez, arin-arina.

Pili, gure artetik joan zara, baina zure oroimena gure artean gelditzen da. Argazkian ageri direnak, goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Arantxa Pagola,



Maria Isabel Borda, Edurne Sagardia, Lurdes Urkia (irakaslea), Kontxi Errasti, Mari Kontxuelo Karrera, Maria Pilar Gorriti, Loli Lizarralde, Ixiar Ikutza, Maria Jesus Astigarraga, Maite Azpillaga, Arantxa Azkonobieta eta Maria Angeles Arruti.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Gauza asko

Kronika idazteko esan zidatenean, segituan etorri zitzaidan burura Sagardo Eguna, gaia hor neukan, egun handia baita. Baina ez da albiste bakarra, kirolak eman dizkigu beste albisteak, eta onak gainera, bai futboleko eta baita eskubaloian ere. Futbolekoa egina dago, ohorezko mailara igo baitira, eta ederki ospatu dute, txaranga eta guzti. Zorionak futbol taldekoei!

Eta eskubaloian, bai neskek eta baita mutilek ere, asteburu honetan sailkatze fasea dute jokoan, ea zorterik dugun, eta bi taldeek lortzen duten fasea gaingitu eta mailaz igotzea.

Ni Santuenekoa izanda eta eskubaloiarekin izan nuen loturarengatik, ilusio handia egiten dit gazte hauek erronka hori lortzea, baina denen laguntza beharko dute. Zoazte astebukaera honetan bai mutiak eta baita neskek ere animatzera, batez ere azken hauek, lagun batzuk tartean dauzkat eta... jajaja.

Eta igandean zer, hemen dugula Sagardo Eguna, eta jende asko lan eta lan ari dela dena behar bezala atera dadin. Ziur dena ondo antolatzen dutela beti bezala, eta festa handia egingo dugula denon artean. Beraz, lan asko dugu astebukaeran, gure gazteak animatu, eta igandean, Sagardo Egunean ospatzera, behar den bezala, alegia, neurritz.



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Kiroldegia

Gazteak ginetik hona, gauzak asko aldatu dira eta honetan ere asko nabari da. Oiaro Kiroldegia gertu dago herrian, eta jendea hurbiltzen da ber-



tara. Aukera ederra dugu adin guztietarako. Haurrak batzuk, txikitatik joaten dira igeriketa edo eskola kiroleko jardueretara. Ikasgela osoak ikusten dira murgilduak soinketan.

Gazteak, karate, judoa, aerobik, futbola, saskibaloia, eskubaloia, hip-hop, gimnasia erritmikoa egiten, besteak beste. Helduentzat, pilates, mantentze gimnasia, kirol tresnak, bizikleta... aukeran. Gu gimnasioan biltzen gara.

Hemen dugu, bertan ateratako kide batzuen argazki bat, mantentze gimnasia egin ondoren.

Kartel pegada egin du EH Bilduk, hauteskunde kanpaina abiatzeko



Europako Hauteskunderi begira, orain arte soilik EH Bilduk egin du ekitaldirik herri mailan.

Herriarren bozka eskatzeko kanpaina betean dira eragile politikoak. Usurbilen momentuz, maiatzaren 25ean ospatuko diren Europako hauteskunderi begira ekitaldi bakarra ospatu da orain arte; kanpaina abiatzeko EH Bilduk joan den ostiralean burutu zuen kartel pegada.

Tritikilariek lagunduta osatu zuten, herri erdigunean zehar jarriak dauden hauteskunderi-tako paneletatik barrena egin zuten ibilbidea. Besteak beste, Usurbilgo Udalean koalizioak

dituen udal ordezkariak parte hartu zuten; Mertxe Aizpurua alkateak edota Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Iñaki Ugarte, Joxe Ramon Furundarena eta Eustakio Arrojeria zinegotziek. Baita Foru Aldundian eta Madrilgo Diputatuen Kongresuan, Bilduk eta Amaiurrek hurrenez hurren dituen ordezkari usurbildarrek ere: Garbiñe eta Xabier Mikel Errekondok. baita zenbait herritar haiekin.

Dema plazan amaitu zuten hauteskunde kanpainako lehen ekitaldi amaieran, taldeko argazkia atera zuten guztiek.

Ostiral honetan, ekitaldi politikoa frontoian Hitzordu honekin, EH Bilduk Europako hauteskunderi begira aurkeztu duen hautagai Josu Juaristiri babesa adierazi zioten. Momentuz, beste ekitaldi bat deitua du koalizioak, ostiral honetarako, maiatzaren 16rako, 20:00etan frontoian.

Joseba Alvarez, hizlari Hizlari lanetan jardungo du Joseba Alvarezek. Oraingoan, hilaren 23ra arte luzatuko den kanpainarako beste ekitaldirik ez da deitu Usurbilen.

Bozkaleku bat gutxiago, Kalezarren

Espainiar estatutik, Usurbilen ere eragina izango duten hainbat murrizketa aplikatu dituzte maiatzaren 25eko hauteskunderi begira. Orain arte udalerrin honetan hauteskunde deialdian bozkatzeko zeuden zortzi guneetatik bat kendu dute; Kalezarren jartzen ziren bi mahaietako bat. Maiatzaren 25eko hitzorduan beraz, botoa emateko mahai bakarra izango dute herritarrek.

Udalaren alegazioa

Gutxigatik ez du lortu Kalezarren, bigarren mahai izatea. Auzoan bozkatzeko gunean erroldatuak, 1.187 herritar dira. Bigarren mahai jartzeko 13 hauteslegoren faltan geratu dira. Kalezarrek 1.200eko hautesle kopurua gainditu izan balu, orain arte bezala, bigarren hauteskunde mahai mantenduko zuten. Erabaki honek izango duen eraginaren aurrean, apirilaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran berri eman zuten, neurri honen aurkako alegazioa aurkeztu zuen Usurbilgo Udalak. Baina atzera bota dute, ez dute aintzakotzat hartu. 1.187 herritar deitua daude beraz, Haur Eskolan kokatuko duten mahai bakar horretara.

Betiko tokietan

Gainerakoan aipaturikoa, ohiko mahai kopurua jarriko dute maiatzaren 25ean. Betiko lekuetan; hiru Kaxkoan, Udarregi Ikastolan. Beste lau auzoetan; mahai bana, Kalezarko Haur Eskolan, Aginagako Herri Ikastetxean, Santuenea Elkartearen eta Zubietako Lanbide Eskolan.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza
 · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
 · ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

LOGOPEDIA
 Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahoaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

Odolaren Mintzoaren zuzeneko grabaketara joateko aukera



Grabaketa ostegunean egingo da, 18:45ean Donostiako Elkar estudioan.

Luken Arkarazo, Beñat eta Joanes Txueka anaiek eta Jokin Irastorzak osaturiko taldearen zuzeneko grabaketa saio bat ikusteko aukera izango da, ostegun honetan, maiatzaren 15ean, 18:45etatik aurrera Donostiako Elkar estudioetan (Portuetxe, 88 bis). Elkar argitaletxeak eta Hamaika Telebistak antolaturiko saioan, 50 laguntzako lekua dago. Zuzeneko grabaketa saioa bertatik bertara ikusi eta entzutera joan nahi due-

nak, aurrez eman behar du izena, elkarestudioa-sesioak.com atarian.

Hamaika Telebistak grabatuko du osteguneko saioa eta telebista kate berean ikusi ahal da emaitza, ekainaren 20an. Usurbilgo taldeaz gain, egunotan Elkarretik pasako dira, Izaki Gardenak, Ezinean, Sei Urte, eta KEa taldekoak. Grabaketa saio guztiok ere Hamaika Telebistak eskainiko ditu, maiatzaren 30etik ekainaren 27ra, ostiralero.

Kalezarko San Joanetako oharra

Datozen festetan ospatuko den Umeen Eguna antolatzeko bilera deitu dute, maiatzaren 20rako, asteartea, 18:30ean elkarteko mahaietan.

“Mussche” nobela, datorren literatura topaketako mintzagaia

Kirmen Uribek idatzitako liburua komentatuko da, Sutegi udal liburutegiak, maiatzaren 29rako, 19:00etan liburutegian bertan antolatu duen euskarazko literatura topaketaren baitan. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko ekitaldia, aurrekoetan bezala, Pako Aristik gidatuko du. Eleberrri honen aleak aurrez eskuratu eta irakur ditzakezue. “Anima zaitez parte hartzera, lagun giro ederra aurkituko duzu eta!”, luzatu dute gonbita liburutegitik.

Makrobiotika saioa Baratze dendan

Baratze denda antolatu dute, maiatzaren 24an, goizeko 11:00etatik 13:00etara. “Makrobiotikara hurbilketa” izenburupean egingo da jardunaldi saioa. Irekia edonorentzat. Saioan zehar, “elikadura energetiko eta makrobiotikora gerturatuko gara. Tofua, hummus, arroz integrala, mijo, quinoa... Oinarritzko errezeta elikagarriak ikasi eta partekatuko ditugu. Errezetaren bat ezagutzen baduzu, etorri maiatzaren 24an, goizeko 11:00etan Baratzera”.

Jendetsuak, Jexux Artze Keren ekitaldiak

Areto bete jende abiatu zen Jexux Artze Kultur Elkartek urtero maiatzean antolatzen duen zikloa, eta halaxe amaitu zen. “Hiru” antzezlanak zaletu ugari batu zituelako. Txalo konpainiaren komediarekin jendea algarra batean izan zen Sutegin. NOAUA!ko bazkideen arteko sarrera zozketan, Arantxa Zuriarrain izan zen zorionekoa. Bezperan ere, maiatzaren 9an, lagun asko bertaratu ziren “Asier ETA biok” filma ikustera.

Gau Beltzerako sarrerak salgai



Maiatzaren 24an, gaueko 23:00etatik aurrera Aginagan ospatuko den kontzertu gaue-rako sarrerak, aurrez eskura daitezke 8 eurotan, Aitzagan, Aginagako Arrate Egoitzan, Lasarte-

ko Ilargin eta Orioko Kalakarin. Su Ta Gar taldeak “Bizirik gaude” lan berria aurkeztuko du Eliza Zaharreen, Izeberg taldekoek estreinako diska eta Legez Kanpo taldeak borobilduko du Gau Beltza.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Usurbilgo eskubaloia, asteburu historiko baten atarian



Igoera fasea Senior Neskak

Maiatzak 16, ostirala

16:00 S.D. Lagunak-BM. Rasoeiro
17:45 Usurbil K.E.-C.D. Tahiche

Maiatzak 17, larunbata

10:30 S.D. Lagunak-C.D. Tahiche
12:30 BM. Rasoeiro-Usurbil K.E.

Maiatzak 18, igandea

12:50 Usurbil K.E.-S.D. Lagunak
14:30 C.D. Tahiche-BM. Rasoeiro

Maiatzaren 16tik 18ra herrian bizi-ko dena, ez da askotan errepikatuko. Usurbil Kirol Elkarteko bi eskubaloi talde-senior neskak eta mutilak-igoera fase bana jokatzeko, non eta etxean, Oiardo Kiroldegian. 50 urte bete dituen klubarentzat, historikoa izango da. Eta nork daki gainera, txapeldun amaitu dezakete. Igandeko Sagardo Eguna, egun handia izan liteke herriko eskubaloientzat. Aurretik ordea, neurketekz beteriko hiru egun

izango dituzte seniorrek, asturriar, galizar edota kanariarren aurka. Gertatzen dena gertatzen dela ere, zaletuei, neurketak garrantzitsuotara gerturatze-ko gonbita luzatzen diete.

SARRERAK AURRETIK EROSTEA KOMENI DA

■ Maiatzaren 12an eta 13an: bazkideentzat. Maiatzaren 14an eta 15ean: denentzat. 19:00-20:30 artean Oiardo Kiroldegian.

■ Prezioak: 5 euro eguneko (mutilen bi partidak) eta 5 euro eguneko (nesken bi partidak).

Igoera fasea Senior Mutilak

Maiatzak 16, ostirala

19:45 ED Poio Artai-Base Oviedo
21:30 Ucin Aluminio Usurbil-P. Carmen

Maiatzak 17, larunbata

17:00 Ed Poio Artai-P. del Carmen
19:00 Base Oviedo-Ucin Aluminio Usurbil

Maiatzak 18, igandea

9:00 P. del Carmen-Base Oviedo
10:40 Ucin Aluminio Usurbil-Poio Artai

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Senior mutilak: “Txapelketa on bat egin eta gustura geratu nahi dugu”

Asteburu historiko honen atarian, Aitor Arruti elkarrizketatu dugu, senior mutilen taldeko entrenatzailea. Inor baino hobeto jabetzen da, taldeak bizi duen uneaz. Urte askoan eskubaloi jokalarizandakoa, halako une gozoen lekuko zuzena baitugu. Arruti, lan on bat egiteko prestatzen dabil, denboraldia garaipenez josi duen taldea. Azken ahalegina egitera doaz asteburuan. Eta bigarrenetik lehen nazional mailara igotzea lortzen badute, igandean jai giroa lehortuko da.

Nola baloratzen duzue igoe-ra faseak Usurbilen jokatzea?

Aitor Arruti: Oso garrantzitsua da. Herri mailan festa handia izango da. Jende mugimendu handia ibiliko da. Azkenean Usurbilek eskubaloian beti izan du izena, eta hemendik kanpo asko baloratu da. Jokalari asko egon dira Asobal mailan, nesketan ere bai, beti guk uste duguna baino gehiago baloratu da Usurbil.

Zer suposatuko du herriarentzat?

Herriarentzako oso garrantzitsua izango da. Datorren urtean, neskek Usurbilen halako fase bat jokatu zutenetik hogeitau urte beteko dira. Orduan mailaz igo ziren. Senior mutiletan jokatzen nuenean, 1999an Galiziar joan ginen. Han kontraturatu ginen festa handia dela. Taldeak, afizioak, eskubaloia 24 orduz bizi zuela. Bizitzeko oso festa polita da.

Zuen esperientziatik, zer espero duzue asteburuan Usurbilen?

Usurbilgo jendea ilusio handiz dago, afizioa ere bai, bai nes-



Aitor Arruti entrenatzailearen esanetan, “etxeko talde bezala, jakin behar dugu sortuko den giroa bultzada moduan hartzen, ez presio bezala”.

AITOR ARRUTI

“Momentu gogorak egon direnean taldeak jakin du eskubaloian jolasten, gure lana egiten”

ketan eta mutiletan. Uste baino jende gehiago etorriko da probintziatik, azkenean eskubaloia jende askori gustatzen zaio. Giro ederra egongo da. Etxeko talde bezala, jakin behar dugu hori guztia positiboki, bultzada moduan hartzen, ez presio bezala.

Nola ari zarete kudeatzen, igoe-ra fase garrantzitsu honen aurreko tarte hau?

Nahiko ondo daramagu. Urte eta erdi daramat taldean. Lehen neurketen bukaeran urduritasuna galtzen zuen baten bat egoten zen. Aurten partida asko, azken hamar minutuetan irabazi dira. Momentu gogorak egon direnean taldeak jakin du eskubaloian jolasten, gure lana egiten. Esperientzia badut jokalariz moduan, halako fase bat jokatu bainaiz. Kiroltasuna saiatuko naiz transmititzen. Onenak izatea espero dugu, baina ez bagara onenak, irabazleari eskua eman eta zorionduko ditugu. Onenak irabazi dezala.

Jokalariek nola bizi dute une hau?

Oso pozik daude. Irabazteko inertziarekin, entrenatzeko, lanerako segurtasuna ematen du. Eragozpen txiki bat jartzekotan, errazegi irabazi dugula orain arteko txapelketa. Orain arte partida zail batzuk izan ditugu, baina gehienak aurrera atera ditugu. Datorren asteburukoa, beste kontu bat da. Neure lana, taldea horretarako prestatzea izango da.

Zailtasun egoeratan indarra erakusten duen taldea da zuena?

Talde honen indarra, taldea bera da, taldeko errespetua. Jokalariak ere konturatu dira entrenatu gabe ez dagoela ezer egiterik. Ni zentzu horretan oso harro nago. Entrenamendu saioetara etortzen dira, ahal duten guztia ematen dute eta horrek berak konfiantza ematen du partidetakoa momentu zailetan.

Balizko Sagardo Egun historiko baten aurrean gaude?

Hala da. Halere, irabazi edo galdu, guk txapelketa on bat egin eta gustura geratu nahi dugu.

BENITO MUJIK GOGOAN

Maiatzak 17, larunbata 18:45 inguru, Benito Mujika Illarremendi zenari omenaldia.

SARREREN SALMENTA

Oiardo Kiroldegian, 19:00-20:30 artean.

“Lortu dugunarekin jada, oso gustura gaude”

NOAUA! Senior taldeak erreferentzialak izan dira beti. Txapelketa honek harrobia motibatuko du?

Aitor Arruti: Urte piloan jokatu duteskubaloian. Urte batzuk behetan, beste batzuk goian. Taldea goian dagoenean denean eragiten du. Harmailak bete egiten dira, gazte guztiek eskubaloian jokatu nahi izaten dute. Azkenean erreferentzia da. Usurbilen hori da gertatzen dena. Beheko taldearen laguntza izanda, gehienak usurbildarrak direla. Ia 40 gazte eskubaloian aritzea, eta ia denak usurbildarrak izatea, hori udalerrientzat pozgarria da.

50 urte bete ditu taldeak, are pozgarriagoa, denboraldia borobiltzeko?

Hala egokitu da. Lortu dugunarekin jada oso gustura gaude. Hau sari berezia litzateke. Ez badugu lortzen, ezin gara geratu hau denboraldi txarra izan den ustearekin.

Igoera fasearen atarian diren jokalariei zer esan nahi zenieke?

Oso harro nagoela nola lan egin duten eta talde bezala nola moldatu garen. Errespetua izan dugu, kiroltasuna. Askok hazi dira jokalariz bezala. Azken ahalegin txiki bat eskatzen diegu, hau guretzako sari bat da. Ateratzen dena ateratzen dela, gu saiatuko gara. Etor dadila jendea, seguru jokalariek guztia emango dutela. Ia urte hau ederki borobiltzen dugun.

Senior neskak: “Usurbilgo emakumeen kasta erakutsiko dugu”

Euskadiko txapeldunorde apirilean, eta orain, igoera fase hau. Emozioz beteriko garaia bizitzen ari dira senior neskak. Gonzalo Brea entrenatzaileak zuzenduriko eskubaloi taldea, urrutira heldu da. Jokalari kopuru aldetik zituzten muga guztiak gaindituta, emaitza ikusgarriekin gainera. Urrutirago heldu daitezke asteburuan. Guztia emateko prest dira behintzat, jokalariek.

Zer moduz zaudete txapelketa atarian?

Senior neskak: Zazpi, zortzi jokalarirekin honaino heltzea inork ez zuen espero. Taldea gogoz ikusten dugu, lasai. Egin beharrekoa egin dugu eta hau opari bat da guretzat. Gozatzera goaz.

Txapelketa honi begira, erronkarik?

Gozatzea. Partida politik egin eta talde osoa gustura aritzea. Behetik datozenei erakutsi nahi diegu, emakumeok ere urrutira heldu gaitezkeela, zazpi edo zortzi jokalaria izanda. Guretzat garrantzitsuena ez da irabazi edo galtzea, hor egotea, taldean dugun giroa, konfiantza. Gertatzen dena gertatzen dela, izugarria izan da orain arte egin duguna.

Zerk ekarri zaituzte honaino?

Elkarren artean lagunduz heldu gara honaino. Hemen bagaude, denon erruagatik da. Taldean bakoitzak bere papera du eta ongi bete du. Talde oso baten lanketa eta parte hartzea dago honen atzean. Zazpi-zortzi jokalaria izanda, jokalarien konpromisoa azpimarratu nahi dugu. Partidaz partida joan gara. Ez dugu jarri helbururik. Taldea egunerokotasunetik



Gonzalo Brea entrenatzailearekin batera, Usurbil KE taldeko senior neskak.

SENIOR JOKALARIAK

“Taldean bakoitzak bere papera du eta ongi bete du. Talde oso baten lanketa eta parte hartzea dago honen atzean”

egin dugu. Taldearen jarrera bikaina izan da.

Tradizioz, talde on batetaz hitz egiten ari gara. Lehendik ere garaipenak bizitakoa dena?

Jubeniletan ere antzeko ibilbidea egin genuen. Taldea osatzen zen lehen aldia zen. Jende gutxi, jokalaria berri asko, baina talde gisa bat egin eta sektorera iritsi ginen. Galdu genuen, baina esperientzia izugarria izan zen. Urtebete beranduago, sektorera joan eta bigarren sailkatu eta azken fasera heldu ginen. Hor ere galdu genuen, baina esperientzia izugarria izan zen. Seniorretan dena galtzen hasi ginen. Bat batean ordea talde handia osatu dugu. Iaz, sei edo zazpi jokalarik kolpetik taldea utzi zuten. Uztailean bildu ginen, taldea osatuko zen edo ez erabakitzeke. Ha-

siera batean ez zen atera behar taldea, baina eskatzen aritu ostean, osatu genuen. Hitz eman genuen taldea aurrera atera eta lan ona egingo genuela. Emaitza ikusi da.

Euskadiko fasean ere argi geratu zen. Hiru partidetatik bi irabazita, eta bestea gol bakarragatik galdua?

Partida hori gainera, galtzen gindoazen sei edo bost golenagatik. Baina inoiz ez genuen etsi. Urduri ginen gainera. Oso jende gutxi etortzen da gure partidak ikustera. Euskadiko fasean, bat batean Kiroldegi osoa jendez beteta, kabituz ezinik, bonbo eta guzti ikusteak urduritasun handia eragin zigun. Ez ginen ohituta hainbeste ikuslerekkin jokatzera. Izugarria izan zen. Orain jada badakigu zer den.

Jokalari kopuru aldetik mugatuak egon arren, urrutira heldu zarete?

Euskadiko fasean, aurkarien taldeak ere harritu egin ziren, kontrako entrenatzaileak ere zioen, ia nola zen posible, zazpi edo zortzi jokalarik eurrei irabaztea. Arbitroek ere barre egiten ziguten. Behin Oñatin, jokalaria baten lesioa-

gatik arbitroa barrez, ia zer egin behar genuen, ordezkatzeko inor ez genuela aulkian. Hau lekzio handia izan da geroek geure buruari eman dioguna hasteko, eta inguruko guztientzat.

“Geroa, galdera ikur handi bat da”

NOAUA! Asteburuko txapelketa eta gero zer?

Senior neskak: Asteburuko fase honekin amaituko dugu denboraldia. Geroa, galdera ikur handi bat da. Irabazita ere berdin jarraituko dugu. Jokalari batzuk taldea uztekoak dira. Politza da osatu dugun denboraldia, baina jendeak zereginak ditu. Eta atzetik ez dator jokalaririk. Justu hor salto bat dago, kadeteetatik neska piloa dago, baina jubeniletatik seniorretara pasatzeko neska bakarra. Jendea eskubaloian parte hartzerari animatu nahi genuke. Gero ez dakigu zer egingo dugun, orain oraingoa. Asteburuan gozatzera goaz, gertatzen dena gertatzen dela ere. Eta gero geroakoak. Usurbilgo emakumeen kasta erakutsiko dugu. Dena emango dugu.

Zaletuak hor egotea lagungarri izango zaizue?

Zaletu guztiei, gutaz arduratu diren guztiei hasteko eskerrak eman. Baita jokalariei eman dute nagatik. Gonzalori baita, jasan gaituelako. Eta zuzendaritzako Monseri, neskongatik egin duenagatik, bai klubean eta klubetik kanpo. Eta nahiz eta gurekin ez egon, bere lekutik asko lagundu digu. Eskerrik asko. Aupa Monse eta Kerejeta, gure zaletu handiena! Euskadiko fasean, jendearen babesarekin ondo jolastu genuen eta euren babesa behar dugu. Zaletuak ez ditugu damutuko.

Ohorezko Mailan da senior futbol taldea

HIL ALA BIZIKOA ZEN BERIOREN AURKAKO PARTIDA, ETA 1-4 NAGUSITU ZIREN USURBILDARRAK

Igoera lortu dute Usurbil FT-ko senior mutilek. Ohorezko Mailan jokatu-ko dute 2014-2015 denboraldian, igandean jokatu zen Donostiako Berio futbol zelai-ko final handia irabazi ostean. 1-4koa izan zen, Santo Tomas Lizeoko taldearen aurka jokaturiko partidako azken emaitza.

Neurketa galtzen hasi ziren usurbildarrak, lehen zatian partida hasi eta gutxira sartu baitzuten Santo Tomas Lizeokoek euren lehen eta bakarra izango zen gola. Hortik aurrera etorriko zen, taldea garai-penerantz eraman zituen lau golak. Lehen zatian, tarte gehienez bana berdinduta joan ziren bi taldeak. Bigarrenean etorri zen errematea, Andoni Azkonobietaren, Karlosen eta Ugaitzen golekina. 1-



Argazkian, Ohorezko Mailara igo den taldearen hamaikakoa.

4 azken emaitza. Mikel Rote- tak zuzenduriko futbol talde-aren helburua beteta. Zorion-ak!

ETXEKOEN BABES HANDIA

Nabaria zen usurbildarren

presentzia, maiatzaren 11ko final handian. Batzuk autoz bertaratu ziren Beriora. Usurbil FT-k antolatuta, etxeko futbolarietara animatzera joateko autobus bat ere osatu zen. Futbol zelaiko buelta osoan, klubeko zuzendaritzako ki-

deak, jokalarien senide eta lagunak, zaletuak, herritarrak bildu ziren. Usurbildarren ahotsa nagusitu zen Berion, arbitroaren jokabidea zalan-tzan jartzerakoan, baina batez ere, jokalariei babesa eta animuak adierazterakoan.

Jai giroa lehertu zen Berion, partida amaieran, eta festak jarraipena izan zuen Usurbilen



Roteta entrenatzailea airean, partida amaitu berri.

Partida amaieran, garaipena eskuratuta, jai giroa lehertu zen Mikel Rotetak zuzenduriko futbol taldean. Festa giroak Usurbilen jarraitu

zuen, harrera ofiziala anto- latu baizitzaien txapeldunei, Mikel Laboa plaza ondoko errotondan. Jai giroa, goi- zaldeko ordu txikiak arte lu-



Beriotik iristean, ongi etorri beroa egin zitzaizaien jokalariei.

zatu zen.

ZALETUEI ESKERRAK

Usurbil FT-tik senior mutilen taldea eta entrenatzailea zo-

riondu nahi dute. Eta eskerrak helarazi nahi dizkiete, Beriora joandako zaletu guztiei, eman zuten indarragatik eta jarri zu- ten giroagatik.

Sagardo Egunean mahaia jarriko dute Gure Esku Dago taldekoek

Igande goizeko 11:00etatik 14:00etara Kaxkoan mahaia jarriko dute Gure Esku Dago lan taldekoek. Ate joka dugun ekainaren 8ko giza-katerako izena eman ahalko da bertan. Herritar bakoitzak 5 eurotan erosi dezake metroa. Gogoan izan, 400 usurbildar biltzeko erronka jarri zuen urte hasieran Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak. Erronka gainditu zuten, eta 500 atxikimendu biltzeko kanpaina abiatu zuten gero. Adi, helburu hau betetzeko ere askorik ez zaie eta falta. "Ez dugu lau haizetara ozen zabaldu oraindik, baina zerbait jakin nahi? Gutxi, oso gutxi, falta zaigu Baietz 500! erronka betetzeko...", adierazi dute.



500 herritarren atxikimendua biltzeko ez zaie askorik falta.

Giza-katerako izena eman soilik ez, Gure Esku Dago lan taldeak ateratako kamisetak ere erosi ahalko dira euren informazio mahaian. "Azken asteetan kamisetagatik hurbildutako asko joan dira esku hutsik neurri oso gutxi genituelako. Eta azkenean, berriak jaso ditugu: neurri berriak eta kolore berriekin!", berri eman dute, NOAA!ko Komunitatearen bidez.

BILERA, MAIATZAREN 23AN SUTEGIN

Giza-kate historikorako hila-bete baino gutxiago falta da. Adi, nobedade garrantzitsu baten berri eman baitu Gure Esku Dago lan taldeak. Eki-

GURE ESKU DAGO
Entrenatzen joateko,
giza-kate kalejira
antolatu dute
maiatzaren 23rako.
"Horren ostean jateko
eta edateko zer edo zer
izango dugu prest"

men berezi honetan izena eman duten aginagar, zubietar, eta usurbildarrek, ekainaren 8an, Durango eta Iruñea lotuko dituen giza-kateko eremu zehatz batera joan beharko dute, ekimen honetan parte hartzeko; Uharte-Arakilerera. Maiatzaren 23an, ireki-

ko dute, Nafarroako udalerrir honetara autobusez joateko izen ematea. Egun berean, hilaren 23an, bilera informatiboa deitu dute 19:00etan Sutegin. Eta ondoren, entrenatzen joateko, giza-kate kalejira antolatu dute. "Ahal duzuenok agertu zaitezte. Gainera, bileraren ostean, "giza kate kalejira" egin nahi dugu herrian zehar, eta horren ostean jateko eta edateko zer edo zer izango dugu prest. Beraz, anima zaitezte!", luzatu dute gonbita. Informazio gehiago: usurbilgureeskudago@gmail.com, gureeskudago.net

Ekainaren 8an, onena autobusez joatea

Ekainaren 8an, giza katearen egunean lehentasun osoa autobusez izango dute, eta beraz, kotxea eramatea saihestea aholkatzen dute. Maiatzaren 23an irekiko da autobusean izena emateko epea, "ekainaren 1era arte egongo da epea zabalik. Metroa erosterakoan autobusez, kotxez, edo hutsik utzi bazenuten ere, berdin du; egun horretatik aurrerako izen emateari egingo diogu kasu....", aditzera eman dutenez. Autobusean izena emateko orriak herriko denda eta tabernetan jarriko dira.

Otar-Goxo
El ikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Jardunaldiak, Arrain Migrazioaren Munduko Egunaren harira

Maiatzaren 24an ospatuko den nazioarteko eguna, arrain migratzaileak eta bere beharrak hobetzeko garrantziaz jabetzeko baliatzen da. Egun honekin bat egin eta jardunaldiak antolatu ditu Usurbilen maiatzaren 21etik 24ra, Azti-Tecnaliak, URA Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Usurbilgo Udala eta Ekolurrekin batera:

Maiatzak 21, asteazkena

18:30-18:50 Euskal Herriko arrain migratzaileak. Iker Azpiroz. EKOLUR

18:50-19:10 Euskal Herriko arrain migratzaileek aurkitzen dituzten oztopoak eta konponbide posibleak. Darío Yecora (URA Euskal Ura Agentzia)

19:10- 19:30 Gipuzkoako ibaien konektagarritasuna hobetzen. Patxi Tamés (Gipuzkoako Foru Aldundia).

19:30- 19:50 Oria Itsasadarreko KBEan burututako berristapen jarduerak. Jon Zulaika (Gipuzkoako Foru Aldundia). Tokia: Potxoenea.

Maiatzak 23, ostirala

18:30- 18:50: Aingiraren bidaia sinestezina. Estibaliz Díaz eta Aizkorri Aranburu (AZTI-Tecnalia).

18:50- 19:30: Mahai-ingurua: Angula eta Oria: maitasun istorio zaharra. Tokia: Potxoenea.



Purina zantzuak Oria ibaian. Kexu gisa bidali du irudi hau Joxemari Olasagastik. "Oso kutsatzailea, osasunarentzat kaltegarria. Ibaiko uraren kolorea eta usaina erreparatu... konturatuko zarete. Azken urteotan udaberria aldera gertatzen ari den akzioa da". Isurketa ez legala, etengabea eta masiboa dela dio eta Diputazioan kexua jartzera animatu nahi du jendea.

Maiatzak 24, larunbata

Orbeldiko presan, itsasaldiaren mugan dagoen aingira eta izokinrentzat arrain pasabideari bisita egingo diogu. Bere funtzionamendua azalduko dugu, aurkitzen ditugun arrainak lagindu eta ur gora askatuko ditugu. Ondoren, frontoira joango gara non arrainen migrazioarekin lotutako umeentzat zuzendutako tailerrak antolatuko baitira: feltrokisetak, origamia, makillajea eta koloratzea. Antolatzailea: Azti-Tecnalia.

Partehartzaileak: Azti-Tecnalia, Uraren Euskal Agentzia, Foru Aldundia, Usurbilgo Udala.

Mezuriko bira eta Arlaban-Araotz irteera, Andatzakoekin batera

Bi mendi irteera iragarri ditu Andatza Mendi Taldeak: Mezuriko bira maiatzaren 25ean (goiz pasa) eta Arlabandik Araotzera ekainaren 1ean. "Uztailean Gavarnira joango gara, Estaubeko bailara ezagutzeko eta Taillon mendia igotzeko. Taillonek 3.144 m ditu. Lais-ter izango duzue honen berri".

Mezuriko bira, maiatzaren 25ean

Erlaitzeko informazio-puntutik hasita, mendian bi magalak ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen duen ibilbidea da.

Maiatzak 25 igandea, Oiardo udal kiroldegitik abiatuta, goizeko 8:00etan. Garraioa autobusez. Ibilbidea: 13,5 km (3 ordu).

Joan etorria autobusez egingoenez, izena eman behar da maiatzaren 21a baino lehen. Ordainketak Kutxabank-en 2095 5069 07 1068489805. Prezioak; 8 euro bazkideek eta langabetuek. 15 euro, gainerakoek.

Arlaban-Araotz, ekaineko mendi irteera

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak ekainaren 1erako proposatzen duten txangoa da. 22 kilometrokoa, ia 6 ordutan egiteko modukoa. Goizeko 7:00etarako jarri dute abiatzeko hitzordua, Oiardo Kiroldegian. Maiatzaren 28a baino lehen eman behar da izena. Ordainketak Kutxabank-eko kontu zenbaki honetan egin behar dira: 2095 5069 07 1068489805. Prezioak; 12 euro Andatzako bazkideek eta langabetuek. 15 euro, gainerakoek. Plazak mugatuak izango dira. Ohi bezala, Andatza MKT-koek izango dute lehentasuna. Informazio gehiago: andatzamendizale.info

Zubietako errebote taldea, Donapaleun

Euskal Herriko lehen mailako txapelketari dagokien neurrak jokatu du Zubietak, igande honetan, maiatzaren 18an, goizeko 10:30etatik aurrera Donapaleun. Amikuze taldekoak izango ditu aurkari.

Sari ederrekin amaitu da Aitzaga Elkarteko mus txapelketa

Juantxo Iraolak eta Aitor Makazagak irabazi dute hamaikagarren ediziora heldu den salaketa-elkartasun ekimeneko finala. Maiatzaren 9an jokatu zen zortzigarren eta azken saioa. 25 bikote inguruk parte hartu zuten. Lehen lau sailkatuek, sari ederrak eskuratu zituzten.

- 1. postuan: Juantxo Iraola eta Aitor Makazaga, 1.180 punturekin.
- 2: Juan Mari Orbegozo-Igor Alkorta, 580 punturekin.
- 3: Imanol Esnaola-Unai Imaz, 520 punturekin.



Maiatzaren 9an jokatu ziren azken partidak.

- 4: Jon Esnal-Joseba Bengoetxea, 480 punturekin.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

USURBIL AUTOAK

·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Frontoietan ere, presoen sakabanaketaren aurka



Eskupilota partidetan aritu diren pilotarietako batzuk.

Euskal presoen sakabanaketaren aurkako alderria frontoietara heldu da asteburuan. Etxerat-ek Euskal Herri mailan antolatuturiko "Pilotakadaz pilotakada" kirol ekimena ospatu baita, besteak beste, Usurbilen. Aldarrikapen jaialdi izan zen igandekoa. Batetik, pala erakustaldiak

antolatu ziren. Eta amaitzeko eskupilota partidak. Kirol jardueron bidez, gatibu dituzten hainbat euskal herritarrek etxetik urrun bizi duten egoera salatu dute. Diogun moduan, ez bakarrik Usurbilen, baita urrutirago joan gabe, eskualde mailan ere; Hernanin edota Andoainen kasu.



Pala partidak ere jokatu ziren "Pilotakadaz pilotakada" jaialdian.

Ane Manzidor garaile

Eguraldi txarragatik bertan behera utzi ostean, asteburu honetan ospatu da, I. Jon Uribe Pala Txapelketako nesken finala. Irudian duzue txapelduna, Ane Manzidor aginagarra. Mutiletan, Xabier Zubeldia nagusitu zen. Orain bai, amaitu da beraz, Txokoaldeko Akerra Gaztetxeak Jon Uriberen omenez antolatuturiko lehen pala txapelketa. Antolatzaileek, emandako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiete Xarma eta Aitzaga tabernei.



Bera Bera, txapeldun

Alicante taldeari etxean, Bidebietan, 32-18 irabazi ostean, Ligako txapeldun berria dugu Bera Bera. 2013-2014 denboraldi honetan eskuratzen duten bigarren titulua da; martxoan, Kopa Txapelketa ere irabazi baitzuten. Gogoan izan, bi usurbildar badirela Bera Beran; jokalarien artean, Esther Arrojeria eta entrenatzaile lanetan diharduen Martin Larrañaga. Zorionak!



Esther Arrojeria eta Martin Larrañaga, Bera-Bera taldeko kideak.

Binakako pala txapelketako izen ematea ixtear

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko kirol ekimeneko izen ematea asteazken honetan ixtekoa zuten gizonaekoentzat, ostiral honetan emakumezkoentzat.

- Apuntatzeko deitu 626 110923 telefono zenbakira edo idatzi huizip@gmail.com helbidera.
- Gogoan izan, bi pilotariren izenak eman behar dira.
- Apuntatzen diren bikote kopuruaren arabera erabakiko da lehiaketa sistema.
- Gizonaeko mailan, partidak asteartetan jokatu dira, 19:30etatik aurrera.
- Ordu berean baita emakumezkoen mailan, baina astelehen, astearte eta ostegunetan.
- Pala txapelketako finalak, Santixabeletan izango dira.

Selekzioarekin entrenatzeko deituak

Gipuzkoako infantil nesken selekzioak entrenamendu saioa burutuko du, igande goizeko 9:00etatik aurrera, Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil KEko bi jokalaridau deituak; Elena Recondo eta Enara Egizabal.

Marka berri bat ezarri du Itoitz Rodriguezek

Jubenil mailako 400 metro libreteko Euskadiko errekorra ezarri berri du 48:39ko markarekin. Joan den larunbatean lortu zuen. 16 urterekin marka guztiak ontzeko bidean da Itoitz. Azken garaipenari esker, Itoitzeko lortu zuen beharrezkoa zen gutxieneko denbora gaintzea eta maiatzaren 30etik ekainaren 1era Azerbaijanen jokatu den Europako Txapelketan izango da Espainiako selekzioarekin. Baku hirian arituko da lehian.

Futbola Haranen

Maiatzak 17, larunbata

9:30 Alebin neskak:

Udarregi 5A-Urnieta 5A

Udarregi 6A-Urumea B

11:00 Kadete neskak:

Hernani Usurbil CD-Arizmendi K.E.

15:30 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Zarautz K.E.

Maiatzak 18, igandea

10:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Arrasate C.D.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000€ Tel. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berriak. 138.000€ e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berriua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatant (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobea. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berriua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxebizitza polit bat eskaintzen da erdigunean. Zuzenean nagusiarekin hitz egin. 605 752 667.

Santuenean, diseinu polita eta berriua. 570€. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berriua. 600€. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berriua, 2 logela. Urtariletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gasu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA salmenta, garajeak

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratu-

koak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Interna edo externa moduan lan egingo nuke, haurrekin edo adineko jendearrekin. Esperientziarekin. 634 044 532

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zain-

tzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketara eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrik emateko prest: LHn ingeleza, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxilergoan ingeleza, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarrekin. 619511789 / 943 760418.

Erizaintza laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko gar-

biketarak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Ettxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Ettxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeko garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingelesko klase partikularrik eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrik ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaille moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrik ematen ditut edozein irakaskaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintza graduatua naiz eta gaixoa dauden pertsoneri erizaintza emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrik emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza gradu bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).


Klase partikularrik ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta erreferentzia klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza diplomatu. (647142701 Amaia)


Auxiliar geriatra eta sukaldari bat




Zorionak Iñaki!
Maiatzaren 13an 3 dozena betetzen dituzulako!




Zorionak Jon! Maiatzaren 15ean 4 urte bete dituzu. Muxu erraldoi bat aitatxo, amatxo eta Enekoren partez.




Zorionak Alba! 14an zure 5 urteak ospatuko ditugu. Muxuak aitatxo, amatxo eta Mateoren partez.




Zorionak Aimar! Maiatzaren 25ean lehen jaunartzea egingo duzu. Muxu bat gurasoen partez.



Zorionak Eire! Maiatzaren 18an 3 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Mikeltxo! Sagardo Egunean 6 urte beteko dituzu eta ziur primeran pasako dugula. Muxu bat familia osoaren partez!



Zorionak Intza eta Lide!!! Maiatzaren 18an 3 urte beteko dituzue. Muxu haundi bat Agiñako ikasle eta irakasleen partetik.

eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldan, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketari lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketari lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bateskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketari egiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak asteleheneren 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz

buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patria eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lursail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira.

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxepribatu baterako. Libre ordudesberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzean, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologiko-

ak salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bateskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko su salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 tala, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburua... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiarde Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 15-maiatzak 25

Osteguna 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Ostirala 16 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Larunbata 17 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 18 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 19 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astearte 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Asteazkena 21 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola kalea, 9 Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Larunbata 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Igandea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda maiatza

16 ostirala

■ **Europako hauteskundeak.** EH Bilduren ekitaldia. 20:00etan frontoian. Hizlaria, Joseba Alvarez.

17 larunbata

■ **II. Sagastiak Loretan: sagardo dastaketa gidatua eta afaria Saizarren, Fernando Vadillo enologoarekin.** Izen ematea: Saizar sagardotegian, 943 36 45 97.

18 igandea

■ **II. Sagastiak Loretan: XXXIII. Sagardo Eguna.** 11:00etatik aurrera (gehigarri berezian, informazio osatua). Txosna gunea Mikel Laboa plazan.

Sagardo Egunaren bezperan, baserritarren egun handia

Baserritarren zaindaria omen San Ixidro. Horregatik, herri askotan ospakizun eguna izan ohi da maiatzaren 15a. Ohiturari jarraituz, Usurbilen ere ospatuko da San Ixidro. Herri kirolak, bertso-bazkaria eta kalejira iragarriak daude ostegun honetarako. Artzabalen izango da otordua eta alde zaurretik erosi behar dira txartelak Artzabalen bertan edota Alkartasuna kooperatiban.

Maiatzak 15, osteguna

10:30 Meza Nagusia Salbatore Elizan.

Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian. Olasto eta Otamendi bertsolariak.

14:00 Bertso-bazkaria Olasto eta Otamendi bertsolariarekin, Artzabalen. Txartelak salgai Artzabal eta Alkartasuna Kooperatiban maiatzak 12 arte. Prezioa: 25 euro.

18:30 Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin.



Arratsaldean, herriko erraldoien konpartsak girotuko du festa.

Elkarlanean: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Usurbilgo Gaztetxea, Sagardoaren Unibertsitatea, Saizar eta Urdaira Sagardotegiak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

Jubilatuentzako filmeta solasaldi gehiago

Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak antolatuta, Usurbil, Santuenea eta Aginagako jubilatuek etxetan:

Maiatzak 21, asteazkena

16:00-18:30 Artzabalen: "La vida empieza hoy".

Maiatzak 28, asteazkena

16:00-18:30 Santuenean: "La vida empieza hoy".

Gau Beltzerako sarrerak salgai

Maiatzaren 24an, gaueko 23:00etatik aurrera Aginagan ospatuko den kontzertu gauerako sarrerak, aurrez eskura daitezke 8 eurotan, Aitzagan, Aginagako Arrate Egoitzan, Lasarteko Ilargin eta Orioko Kalakarin. Su Ta Gar taldeak "Bizirik gauden" lan berria aurkeztuko du Eliza Zaharrean, Izeberg taldekoek estreinako diska eta Legez Kanpo taldeak borobilduko du Gau Beltza.

Datozenak

Sagardo dastatze didaktikoa, Urdairan

Sagardo dastatze hamaiketako gidatua, Xabier Kamio enologoak gidatua eta Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolariak gidatua. Izen ematea: Urdaira sagardotegian (943 372 691) eta NOAUA! Kultur Elkartean (943 360 321). 5 euro, eserleku mugatuak.

Ikastolaren Egunaren bezperan, hainbat ekitaldi

Ekainaren Lehenean ospatuko da Udarregi Ikastolaren Eguna. Horren aurretik, hainbat ekitaldi iragarri dira:

Maiatzaren 26an, bertso saioa

Udarregi ikastolako erdiko aretoan, 16:30. Ahozkotasuna eta Bertsolaritza programaren baitan, bertso jaialdia eskainiko dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek.

Maiatzaren 28an, kantagintza saioa

HH5 eta LH5 mailetako ikasleen kantagintza saioa Sutegin. 18:30etik 19:30era.

Maiatzaren 31n, Kantu Taldearen jira

Mikel Laboa plazatik abiatuko dira, ohikoa duten legez, arratsaldeko 19:00etan. Gogoa izan herritar orok parte har dezakeela.

URDAIRA
Sagardotegia
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, **HERNANI**

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX-GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

iruin
sagardotegia
943 36 12 29
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • **943 55 69 81**

SAIZAR
Sagardotegia
Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)
www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA
aginaga **Hotela ****
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, **USURBIL** www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!
AIALDE BERRI
%100 bertako sagarra
Tel: **943 365 031**
Santuenaea

ERABAKITZEKO
ESKUBIDEARI

BALI



Usurbil

Maiatzak 16, ostirala
EKITALDIA 20:00tan
Usurbilgo frontoian
Hizlaria:
Joseba Alvarez

 **ehbildu**
herrikerabaki

EMAN BOTOA

 **ehbildu**
herrikerabaki